

## DNAren froga

**E**

zertarako balio ez zai-  
gunean iristen omen  
zaigu jakinduria, dio  
Garcia Marquez idaz-  
leak. Bizitzan mundua

hil arte giza baldintzan luzatu-  
ko diren xelebrekerien artean  
beste bat. Errealismo magikoa  
deitu zioten Hego Amerikan,  
joan den mendeko hirurogeiko  
eta hirurogeita hamarreko  
hamarkadetan eleberrigintza-  
ren korrante berri handiak eka-  
rrita. Errealitatea ulertzeko beste modu bat  
da, are gehiago, errealitatea bizitzeko modu  
bat dela esango nuke nik. Istoriarik gogorre-  
na bihotz-irribarre batekin ikusten jakitearen  
askatasuna. Carlos Fuentes, Julio Cortazar,  
Mario Vargas Llosa maisu dira praktika  
horretan, eta, batez ere, Gabriel Garcia Mar-  
quez. Euskal eleberrian, errealismo magikoa-  
ren adibide dira, esaterako: Juan Mari Irigoie-  
nen *Poliedroaren bostoak* (1982) nahiz *Babilonia*  
(1989), Bernardo Atxagaren *Bi anai* (1985),  
Anjel Lertxundiren *Hamaseigarrenean, aidanez*  
(1983) edo oraintsuko Julen Gabiriaren *Han  
goitik itsasoa ikusten da* (2004) eta Unai Elorria-  
garenak, besteak beste. Errealismo subjektiboak  
edo ukitu ameslariak jota aberasten den  
errealitate hori leku guztietatik ageri da, ikusi  
nahi duenarentzat behintzat. Ez ditut ahots  
horien pareko jarriko, baina errealismo tragi-  
ko xelebre modernoaren barruan sailkatuta  
jarriko nituzke azken egun  
hauen bueltan gure ingur-  
ruan jazotako batzuk, esate  
baterako, 70eko hamarka-  
dan lapurtutako umez ari  
diren gezur eta egiak. Eus-  
kadi Irratian horrela mint-  
zatu zen Rosa Jauregi bizi-  
rik duela uste duen ahizpari  
buruz: “1971n jaio zen  
Tolosako Asuncion klini-  
kan. Amari esan zioten  
hilda jaio zela, 10 egun  
zeramatzala hilda sabelean,  
baina amak haurra sentitu  
zuen barruan erditu zuen

CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Sarasola



Apaolaza

arte”. Donostian eta Gastei-  
zen DNA probak egin berri  
dituzte, eta ehun lagunetik  
gora joan dira euren aztarna  
genetikoa jasotzera. Ni  
70ean jaioa naiz, eta Tolosa-  
ko Asuncion klinikan. Pix-  
kanaka baretuz joan zait  
sabeleko dardara, baina  
azken asteetan nire gurasoe-  
kin batera garai hartan era-

kusten nauten argazki guztiei eta haien eta  
nire gaurko keinu guzti-guztiei arreta berezia  
jarri dizkiet gertu-gertutik. Kontzientzia lasai  
dutela ematen du, eta ez dut uste salaketarik  
jarri beharko dudarik. Baina beti geratzen  
zaizu zalantza hori... Udalak, ordea, beti dira  
zalantzen argitzaile. Txakurren Udal erregis-  
troan, orain arteko datuez gain, txakurren  
DNA analisia ere jasoko dutela jakinarazi  
dute. Identifikazio genetiko horren bidez  
Udalek espazio publikoetan jaso gabe utzita-  
ko txakur-kakak zein txakurrenak diren jaki-  
tea lortu dezake. Udaltzainek lagin bat hartu-  
ko dute Euskal Herriko Unibertsitateko  
DNA bankuak ezarritako protokoloaren ara-  
bera. Ondoren, banku horretara bidaliko  
dute, txakurra identifikatu ahal izateko, eta  
azkenik, jabearen aurkako prozedura irekiko  
dute. Baina pentsa DNA probak egin eta  
gorotz hori txakurrarena izan ordez, bizila-  
gun batena dela deskubritzen dutela, adibi-  
dez, 70eko hamarkadan lapurtutako ume

haietako batena edota Lan-  
bideren datuak egunera-  
tzean inon ageri ez ziren eta  
zenbatu dituzten 7.500 lan-  
gabe horietako batena edo  
Babcock enpresara lanera  
2004an aurre-erretiratutako  
258 pertsona horien artean  
hilda ere itzuli behar izan  
duten langileetako batena.  
Uxuek heriotzaz aipatu  
zigun zerbait. Hori da, nire-  
tzat, errealismo magikoa,  
errealitateari hil eta bereha-  
la egiten zaion DNA pro-  
baren emaitza. ■

Ni 70ean jaioa naiz, eta Tolosako Asuncion  
klinikan. Pixkanaka baretuz joan zait sabeleko  
dardara, baina azken asteetan nire gurasoekin batera  
garai hartan erakusten nauten argazki guztiei eta  
haien eta nire gaurko keinu guzti-guztiei  
arreta berezia jarri diet gertu-gertutik